

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bidankoze



Aurkibidea

Udalerria: Bidankoze

Sarrera



Nafarroako ipar-ekialdean dagoen herri hau Erronkari Ibaxa (harana) osatzen duten zazpi herrietako bat da. Iparralderuntz Uztarroz eta Ezkaroze ditu, hegoalderuntz Burgi eta Galoze, ekialderuntz Erronkari eta mendebalderuntz Iziz eta Igal (Zaraitzu). Lurralde menditsuan kokatua dagoenez abeltzaintza izan zen Erronkarin garatu zen lehen giza jarduera ekonomikoa eta mendeetan zehar etekinik handienak eman dizkiona. Sorginkeriarekin lotu izan da herria eta horregatik "xurgin herria" deitu izan zaio. Bonapartek, zubereraren azpieuskalkitzat jo zuen erronkariera; baina gaur egun bereizi egiten dituzte bata eta bestea, "erronkariera" beste euskalki bat delako, gainontzekoetatik bereizi behar dena, eta Bidankozekoa erronkarieraren azpieuskalkitzat jotzen da. Erronkariko familia girotik euskara guztiz nola galdu zen jakiteko, XIX. mendearen bukaerara jo behar dugu, nahiz eta oraindik ere hitz egiten zuen jende nagusia zegoen XX. mendearen lehen aldean. 1970eko hamarkadan ia guztiz galduta zegoen. Gaurko egunean, ikastolen lanari esker, berriro ere gure arbasoen hizkuntza entzun daiteke Bidankozeko kaleetan.

- **Biztanleak:** 107
- **Euskaldunak:** %6,54

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- **Hizlariak:** 1

- Zintak: **2**
- Pasarteak: **2**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **2**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Gorka Lekarozen fondoak
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Alejandra Salvoch (1927)

Alejandra Salvoch-ek ez zuen euskararik ikasi ahal izan, jaio zenerako 55-60 urtetik gorakoen artean baizik ez baitzen euskaldun zaharrik Bidankozen. Azken euskaldun zahar haietako bat Josefa Alejandra Calderero Sanz (1869-1952) zen, Alejandra Salvochen amona. Sei bat urte zituela ikasi zuen Salvochek Caldereroren ezpainetatik hemen grabatutakoa. Bertan bi kanta-zati ezberdinen nahasketa dago: "Gairon, gairona" delakoaren zenbait atal, batetik, eta Erronkarin "Goazenak" izenez ezagutzen zituztenen oihartzuna, bestetik.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Alejandra Caldererori ikasitako gabon-kanta zatiak

- **Hizlaria(k)**: Salvoch, Alejandra
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lekaroz Mazizior, Gorka
- **Erref**: BKZ-002/001
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Sei urte zituela `Calderero` etxeko Alejandra Calderero (1869-1952) amona euskaldunaren ahotik buruz ikasitako gabon-kanta zatiak.

Transkripzioa

Belelen, Belelen,
sortu Jesus Nazaret
Nazareneko lizar
enguri ona kantate.
ogi xuria, ostiarako
ardaun ona, kalizeko.
bertan-bertan konbertite
Jesu Kristu goretako.

Txutxurubitate,
natiribitate,
gairon-gairona
argiz argia.
meila jandia
zutan fiatzen
mundu guzia.

Oilarrak ata txoria
mundu guzutik.

Goazen ainguriei
arkainxelireki
gaur kantatzera
gore erregiaren
xinko semiarena
adoratzera.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Bidankozeko eguberri-kanta baten apurrak (BKZ-003/001)

Euren amak ondo zekien euskaraz, baina beraiek ez zuten jaso. Euskarazko gabon-kanta baten zatiak gogoratzen ditu eta errezipitu egiten ditu. Doinua ez du oroitzen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com